

Literatura ez da ezertarako

JOSE AZURMENDI

ARTEAREN EFIKAZIA

Literaturak —edo arteak, arrun-ki— gizartearen zein zentzu duene-ko galderak badu literaturaren era- gindura sozialaren galderarekin ze- rikusirik: jende askori gizartearen li- teraturak zein zentzu duen eta li- teratura zertarako den galdetzea gauza bat eta bera dela iruditzen zaio.

Zerbaiten zentzuaren galdera eta haren efikaziarena, haatik ere, be- rez ez dira berdinak. Baina gal- dera biok, zuzen ala zeharka, beti batak bestea eskatzen eta inplik- atzen dute. Oso ezberdinki noski: artearen zentzu zeharo bere efika- ziaarekin berdintzerainotik, artea ezertarako ez dela balaztzeraino- ko eritzi eskala bait dago. Artea ezertarako ez den eskunea ez da- go hitzez hitz hartzerik, noski. Bai- na jakinagaria da ikuskerak hain, seinalatzen duen bideagatik batez ere. Ta balio dezakealako, litera- turaren balorazio utilistaegien ko- rrekтура moduan.

Gaur mendebalean ere zentzu- aren problema efikaziarenarekin berdintzeko joera bortitza dago, li- teratura "konprometatua" duen mentaren arloan.

Halabaina, artearen efikazia-hau- zia zentzu-nahaspilaz beteta dago. Beharbada problema hau hain je- neralki, orokarki tratatzeak irte- era argirik ez duelako. Dena den, gaur efikazia alpatzen bada, ge- hienetan gizarte aldakuntzaren hei- nean ulertu ohi da. Eta arteak zein zentzu duen galdetzean, gizarte- ala darazteko (ta ia beti: iraultze- ko) zer egin lezakean besterik ez da adierazi nahi.

Hain problema simple eta inpor- tantzia gabeko hau, simple eta in- portantzia gabeko ez beste gutzia da. Literaturak zein zentzu duen gizarte bizitzan, gizonaren mun- duan, norik jakin? Gizarteak berak zein zentzu duen erantzun ahal izanez gero bakarrik erantzun le- zalake. Eta gizarte bururapenen arabera, hemen la literatura arloan eztabaidatzen diren problema guz- tiak sartzen dira: formaren eta ga- lairen arteko neurrien balorazioa, artearen konpromiso soziala edo beronen gabea, literaturaren eta politikaren loturak, zentsuraren problema ere bai hortakoz, e.a.

FORMALISMOA ETA ERREALISMOA

Gauko munduan bi ertzetako joera legez "l'art pour l'art"-en ji- teko formalismoa eta errealismoa sozialistaren teoria aipa ditzeko, paradigma antzean behinik behin. Errealismo sozialistaz jarduteko au- kera geroago ere izango bait dugu, formalismoa jotzen duen Autore bat begiztatuko dit hemen.

Euskal Herria kontradizioz bete- tako gizarte bat da, eta literatura edo artearen bururapenetan ere garbi kontraespilatzen da hori: ar- tearen lehen-lehenik arte huts izan beharri edo formari izugarri go- gotik begiratzen zaio batetik, eta arte iraultzaile amoratua nahi li- tzake bestetik, batez ere mamiak eman lezakean zerbaite iguririk. Bion artean, zinez, kontradizio lo- gikoan baino errazago da prakti- koki erortzea. Teoria hutsetan no- larebait asma bai ditzake nola- halako konponketak. Konponke- taok, halare, kondairan beti luza- ra ezin gortzeko konpromiso ager- tu dira: forma estetiko alde- rako eta mami sozial-politiko alde- rako joerak alde banatarika puska- tzen dira behin eta berriro.

Honek ez du esan nahi bion ba- tasuna ere behin eta berriro bilatu behar ez denik. Gutxiak aitzitik. Ba- kar-bakarrik esan nahi du artea bere gairen eta formaren arteko burrukan desarrolatzen dela, eta burruka hau beti ezberdina dela.

Gure artean orain indarra har- tzen ari diren kontraesanok Erru- sian Iraultza garaian (formalista- -proletkulturalista, errealista) eta

Alemanian faxismoaren garaitea- rin eztabaidatu ziren: 1920 urte in- guruan. Polarizazio hau Alemanian izen berekin koroatuta dago: B. Brecht eta G. Benn.

G. BENN

G. Benn azkeneko 50 urte haue- tako lirikaren teoriaran eskua asko sartu eta arrakastarik haundie- nekoea eduki duena duzu 1928ko Bennen "Frossa bilduma"-ren argi- talpenak eztabaida haundiak sortu zituen sozialista alemanen artean. "Die Neue Bücherschau" literatur aldizkari sozialistako erredazio ko- mittea haustarazterainoko eztabai- dak, alegia, Max Hermann-Neisse sozialista Benni txaloka bezain go- rorrak ziren J. R. Becher eta E. E. Kisch kommunistak erasiak eta zar- taka. Benn estetizista da, ez dago dudarik batere. Nolanahi ere, bere estetizismoaren konprenitzeko, ha- ren zoru polemikoa gogoan eduki behar: Bennen ondorengo eritziok Becher eta Kischen aurka emanak dira.


Literaturak historiaren gorabehe- retan eraginik batere ez daduka, Bennen ustez; eta eduki nahiz ez edukitzea, eduki beharrik eza be- zala ulertzen du berak. Hau da, hiru mailatan hartzen du, litera- turak ez daduka historiaren eragipe- nik, ez daduka eduki beharrik, ez- ta edukitzerik ere. Literatura be- rez kondairerik kanpora dago. Ez daduka eragindura sozial edo poli- tikorik. Eta noizpait halakorik bal- din badaduka, zeharka bakarrik da, ez daduka literaturak berak, literaturaz jantzita datorkeen bes- te zerbaitek baino.

Aurrenik; etorkizun hobe batez arduratu den idazle asko dago. Mi- to baten regularitatez, arautasu- nez, erreberitzen dira literaturan halako etorkizun hobetzaleak. De- la etorkizun utopikoak bururatuz (Jules Verne, Jonathan Swift), de- la gizarte honen okerrek salatz, de- la orainko gizarte utopikoaren plan- eginez (Platon, Campanella, Morus, e.a.). Konkretuak, egunean idazle asko ikusten da politikazko arazo- eta parte hartzen: manifestuak izenpetzen, protestak altxatzen, e.a. Halako eta holakoren alde, beste- lakoren kontra. Honela "konpromete- taturiko" idazleak ilustrazioz ge- rozko idazle irudiari ederki dago- ki; gizartearen predikari eta juez antzeko zerbaite. Gizartearen gai- netik sentitzen den gizartearen mo- ralista. Voltaireri Calas merkata- riarare, heitortze bidegabekoak Sur la tolerance idaroki zion. Zolak J'accuse sonatua bota zuen Drey- fus aferaren erdian, Eguneon Sar- trek eta Russellek Amerikako in- perialismoa juzgatu dute. Hori de- na ezer ez al da?

Bennetik inolaz ez dio gutxi hori ezer ez denik. Gauzak ez nahas- tekotan gutxi horrek literaturare- kin zerikusirik ez dadukala uste du. Gutxi hori apika txalogarri bai, baina literatura ez dela. Hori egi- teko eskubide eta obligazioa idazle- leri ez bait dotozko idazle izate- rik, herriat izatek baino. Eta egin ere bere herriatigotik egin du, ez idazletatik. Idazleak beste edozein herriat sinplek baino modu eta eskuarte hobeak baldin baditu, haiezkatz baldintz ahalagindu be- har du, hori bai. Baina zenbat eta eginikizun horretan gehiago sartu, eta ere urruntzenago da bere-bere- a den eremitik, besterenean —espe- zialitateari bagazokio— amateu- rikismo egiteko. Hau da, gizarte- ari forma enpiriko konkretok emate- ko eginkizuna ez da literaturoana. Literaturo eginkizun horietan sar- tzen denean, bada, ez da literatu- rak diktatzen dionari jarraiki ari.

Literatura bera, hortakoz, bere naturaliaz beraz zertarakorik ga- bea litzake, praksiaren heineko on- dorio enpirikorik gabekoa.

Gutxi honen arrazoiak, aisa asma ditzekenez, ia "literatura eginaz" bakarrik adieraz ditzeketen literatu- raren konzeptu batetan daga. Ja- kina. Eta literaturaren erabateko autonomia presuposatzen du.



Remigio Mendibururen obra bat. «Artea», zertarako da?

Baina ez bedi inor engaina; Ben- nek ez die "konpromisoari", "me- zuari", e.a. zaputzik egiten. Kon- promisoaren bururapen tradizioa- la, ilustrazioz gerotzea, jartzen du hauiztan eta arbuaitzen. Konpro- miso molde hontan idazleak bere burua politikorekin, teknikoaren edo gudiariaren aldameneko zerbitzari bihurtzen du. Ta horretan kon- tra zihorean ere, bertan erori da. Ulerpen horren arabera konpromete- tatu da, bere garaiko politiko eta tekniko sozialen alde nahiz kontra ibili.

IDAZLEA, ZERBITZARI

Gaur ere horixe bera ikusten da. Idazleak su eta gar ari dira mun- du kapitalista higuigarri, zikin hau salazten. Ta zorizgaitzik gabe- ko paradisu bat agintzen dute; ha- lako batekin alderatuz kritikatzin dute behintzat oraingo gizarteak. Eta lehen, mundua enpirikoki alda- tzea tekniko eta politikoa zela esaten bazuen, orain mundu honen aldakuntza posibilitateak neurtzen dituzte Bennetik eta funtsean ezin al- datzeko aurkitzen du. Zer: mugie- mendu sozialak beti egon dira. Ba- biloniako bankariak 20 % mozkin abantzuaren ematen zuten mailaguz. Egiptok intzentsuaren monopolioa hertsi zuen. Esklabuek guduak egin zituzten. Gaitzok beti egon dira. Gauzko langileak duela mende ba- ztuetoiko jauntxo eta Erregeek be- renen jauregiaren baino konfort ge- hiago daduka, edozein ekonomistak daki hori. Baina zapalketa gaur ere atzo haina dago, beti egon den bezalaxe. Gauzko pobreak duela hi- ru mende aberatsak baino hobeto bizi dira, eta hiru menderen bu- ruan berriz ere berdin izango da. Neurri berdin-berdinean. Zer dira orduan gauzko hainbeste idazleren sursun corda hoi, mundu zeharo berriren bat iragartzen duten pe- riodiko hoik, literaturaren kondai- ran beti berririo agertuz, mito huts besterik? Bennet burubiderik ezin asmatu du. Jokabideok, izan ere, esperentziak ukatzen duen eta ideologik ez bestek asmatutako prozesuari atxikitzen bait zaizkio, bere ustez, eta ez gizonari.

Alda ditzekena aldatzeko, mundu hontan, tekniko eta zientifikoak, gudiariak eta politikoak daude. Gau-

za horietan literaturoa ezjakin bat besterik ez da izan ohi, ordea. Eta hori ederki dakielarik, hobekuntza absolutoen izenean, etorkizun abso- lutoen izenean, justizia edo aska- tasun absolutoen izenean, etc. min- to ohi da idazleak, nolabait poli- tiko huts eta txar ez agertzeko.

Egiazko literaturaren konpromi- soak ez luke bukatu beharko, ez besteren alortetan amatenismo merkea egitera sartuz eta ez utopi- ak predikatuz. Aitzitik, literatu- rak gizonari bere egiazko egoera argitu behar lioke: "horrelakoxea haiz hi, eta ez haiz sekula beste- lakoa izango, horrelaxe bizi haiz, horrelaxe bizi izango haiz, sekula santa gutzian horrelaxe biziko haiz. Diruduna sendatu egingo da; Agin- tedunak egieren arabera ziti egingo du; indarra duenak egin du Deretxoa. Horra kondaira, Ecece Histo- ria". Eta honek bakarrik eman- go dio gizonari norbera izateko adore eta kementa, utopiaten bere buruaren ihesi ibili gabe.

ARTEA, KONSOLAGARRI

Arte soziologoez sarri erakutsi izan dute artearen konpensazio funtzioa. Hauserek, adibidez: "...Freud tenia, en el fondo, razón: el arte es un gran consolador y el ígrano calmante; (...) es siem- pre una corrección de la vida y representa la compensación más valiosa a las insuficiencias de la existencia. (...) El arte tranquiliza ya, aunque sólo sea porque presta sentido y fin al caos que ame- naza con devorarnos". "Toda obra de arte es la satisfacción de un deseo, la conquista de un mundo pleno de sentido, perfectamente concebible, que no nos es asequi- ble de otra manera, de un mundo cuyos héroes llevan una existencia concorde con sus fuerzas, sus cua- lidades y su naturaleza, y en el que el sentido de la existencia se nos presenta directamente y domi- na sin limitaciones. El arte es siem- pre una escapatoria; se aleja de la realidad o la violenta...; incluso el naturalismo más radical tiene ante sí imaginariamente una visión de la vida más humana y con mayor sentido que la vida misma. El arte racionaliza y humaniza la existen- cia, y encuentra, si no la solución,

si, al menos, uan expresión para sus problemas, indefinibles e inex- presables por otro camino" (Ik. In- troducción a la Historia del Arte, 1969, III Kap., 3-ºn atala: "El arte como compensación").

Bennet hau gutxi onartzen du. Horregatik, literaturari mundu utopi- koak predikatzen ibiltzea utzi eta errealdadeari "errealismoa" eraz- ten bakarrik saia dadin eskatuko dio. Bildurgarriak gizadia aspira ez dezan, errealdadea edertzen.

Baina ez utopia eta prediku mo- ralekin, esperentziaren arabera bai- zik. Mundua aldatu egiterik ez bait dago —bestela agertarazi bakarrik da, egin ditzeketen gutzia ta nola aldatu asmatzerik ere ez daduka- gu. Izan ere, aldatzen hastekotan, zeinen gustuaren modura egin? Zei- nen xede eta jakiturien arloan? Zein moral erabiliz? Naturalizaren arabera? Baina naturalizea bere se- metan bakarrik bizi den ama bat da. Bere hortan utzi edertu behar du idazleak mundua.

Bururakizun hoekin Benn nahi- taez individualismora aliegatzen da. Mundua edertzeko artistaren, literaturoaren erzipideak, norbere barnetik bakarrik har ditzake. Mundu itxusi honetxean edertasuna egin nahi du. Ez egin eta ez izan nahi du beste mundurik. Beraz, li- teraturok funtsean ez du etengabe- ko monologo barnekorra besterik ematen (ez ahanzt Benn gehienik lirikaz aritu dela). Monomania in- dividuak darrakio, eginkizun hontan arazionalismoak etengabeki erasiatuta, baina hortantxe bertan jeinnek atergabe konfirmatu eta egiaztatutik. Arazionalista kriti- koek beti berririo besterik eskatu eta agindu arren, kondairako jein- nu gutziek literatura horixe bes- terik ez dela erakusten dute, beti berriro.

Idazlea gizarte honen ez beso, ez kanta eta ez mailurik da. Iz- pirituak bakarrik da. Izpiritua be- zain ahul, eta munduari arrotz. Nietzschek igarri zion moduan, mo- dak ez dio laguntzarik eta errazta- sunik behin ere ekarri. Konpromiso politikorekin modak, lehenagoko beste edozeinek bezain gutxi.

Benn dicit.